

Allende Salazar ikastetxeko hizkuntza proiektua

Marian Araucua

Zearreta 11, 48300 Gernika-Lumo

Tel: 946251455/946270122

Faxa:944560040

E-maila: 014308aa@hizkuntza.net

Dekretu berriak esaten duenaz

Oinarrizko Hezkuntzaren 2007ko dekretuak proposatzen duen moduan Hizkuntza Proiektua, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren barnean kokatu behar dugu. Hau, ezinbestez, indarrean dauden lege eta araudiekin eta egungo errealitatearekin dago loturik; gizarteak bere egiten dituen helburuekin, hain zuzen ere.

Hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilpenarekin lotutako alderdi guztien plangintza da Hizkuntza Proiektu hau. Honen arabera, ikaskuntza prozesuan hizkuntzak nola irakatsi eta erabiliko diren finkatuko da eta curriculumean hauei zein trataera emango zaien zehaztuko da.

Hizkuntza Proiektu honek gure praktikari lotura eta koherentzia handiagoa emango dio, eta bestalde, moldaketak egiteko eta berrikuntzak sortzeko garaian ere bidea argituko digu.

Eskolaren bilakabidez

Hizkuntzak ondo menderatzea funtsezkotzat jo dugu beti ikaslearen ikaskuntza prozesuan. Honengatik, maiz hitz egiten eta hausnartzen dugu gai hauen gainean: hizkuntz ereduak eta ikasleen taldekatzea, curriculum eta departamenduen muina eta antolaketa, metodologia, hizkuntzen agerpen-unea eta intentsitatea, baliabideak, irakasleen esku-hartzea...

Orain dela hogeita hamar urte Euskal Autonomia Estatutua onartu zen; hogeita bost urte pasatu dira hizkuntza ereduaren markoa ezarri zenetik, eta hogeita bost, baita ere, gure ikastetxean B eta D ereduak abian jarri zirenetik.

Lan eskergea egin da euskarako programak zehazten, irakas-baliabideak sortzen, erabilpena sustatzen, irakasleak trebatzen... eta horrexetan segitzen dugu.

D eredia ikasle euskaldunentzat eta B eredia gaztelaniadunentzat sortu arren jatorriz, legeak, gizartearen eskaerei erantzunez, eskua zabaldu eta eredu hautua gurasoen esku utzi zuen.

Familia gaztelaniadun gehiagok D eredia aukeratu nahi baitzuen bere seme-alabentzat; ttanttaka-ttanttaka ikasle gaztelaniadunak D ereduan sartzen joan ziren.

Irakasleen artean B eredia kuestionatzen zuen iritzi sendo bat nagusitzen joan zen: *“Motza geratzen da legeak ezartzen dituen helburuetara iristeko, eta oso mugatua, kultura- eta hizkuntza-jatorri ezberdinetako ikasle-taldeak bat egiteko garaian”*.

1996/97ko ikasturtean B eredia desagerturik D ereduko ikastetxea soilik bihurtu zen. Hortik aurrera ikasleen taldekatzeak aldaketa nabaria eduki zuen.

1997/98ko ikasturtean ikasleek 5 urtetik aurrera ingeleseko klaseak edukitzen hasi ziren. 1998/99 Goiztiar Proiektuaren eskaintza departamentutik jaso zen eta ikastetxeak sartzea erabaki zuen eta 4 urtetik aurrera ingelesa eskaintzen hasi ginen.

Proiektu honetan biltzen den edukiaz

Hauek dira proiektu honetan jasotzen diren edukiak:

1. Ikastetxearen Inguru Soziolinguistikoa.
 - Datu estatistikoak
 - Matrikula garaiko datuen jasoketa
- 2.- Ikasleekin lortu nahi diren Helburuak
 - Marko Orokorraren Zehaztapena
 - Ikasleen taldekatzea
 - Hiru hizkuntzen presentzia
 - Hizkuntzen tratamendu bateratuaz
 - Eskolako hedabideen garrantzia
 - Inputa eta outputa
 - Ahozko hizkuntza
 - Ipuinaren eta antzezpenen balioa
 - Irakurmena eta idazmena

- Helduberrak

4.- Euskararen Normalkuntza

- Ikasleen euskarazko harremanak sustatzeaz
- Bazkalorduko eta kirol ekintzetako harremanez
- Idazkaritzako lanaz
- Ebaluazio txostenez
- Gurasoekin dugun harremanez
- Euskararen aldeko kanpainez

Ikastetxearen osotasunari begira egingo da proiektu hau. Hala, bere eragin eremua eskola komunitate guztian ezarriko da, eta ondorioz, kide guztien parte-hartzearen bitartez burutuko da.

1. Testuinguru Soziolinguistikoa

Datu estatistikoak

Gure ikastetxea Busturialdeko zonaldean kokatuta dago, zonalde euskalduna. 2010eko datuen arabera %69,5ek dute euskara ama-hizkuntza eta beste hizkuntza bat %30,5ek.

Euskararen presentzia eta erabilera oso handia da, bai eremu instituzionala, bai eskolako Kideena, bai gelaz kanpoko jarduerena, beraz guztira %80,56 da.

Lehen hurbilketa batean, EAeko bi hizkuntzen, hau da, Euskararen eta Gaztelaniaren, egoera diglosikoa aitatu behar da:

Gaztelania da hizkuntza indartsuena lurralde eremu zabal batean; biztanle gehienen ama hizkuntza, eta nagusia da, halaber, komunikabide eta giza esparru gehienetan.

Euskara da, hizkuntza minoritarioa, ahula, esparru berrietara hedatu nahi dena; hezkuntzari esker ezagutzan gora joan arren, erabiltzean oso mugatua oraindik.

Matrikula garaiko datuak

Matrikula garaian, eta ondoren, ikas-prozesuan, familian erabiltzen denaren eta ikasleak duen hizkuntzen ezagutzaren datuak biltzen ditugu. Hauek inportanteak dira taldeak osatzeko eta ikaslearen hizkuntz garapena jarraitzeko.

Familiari buruz:

- Ama, aita, aitite-amoma eta zaindariaren euskara ezagutza
- Familia-hizkuntza nagusia zein den eta aita-amen artean komunikatzeko hizkuntza zein den.

Ikasleari buruz:

- Euskara eta beste hizkuntzen ezagutza.
- Eskolara etorri aurretik egindako ibilbidea, euskararekin izandako kontaktua....

2. Ikasleekin lortu nahi diren Helburuak

Komunitate elebidun batean bizi gara eta bertan euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak; beraz hezkuntza sistemak, eta guri dagokigunez, ikastetxeak, bermatu behar du bi hizkuntza hauen ezagutza sendoa. Halaber, bizi garen mundu globalizatu honi eta gaurko eta etorkizuneko errealitateari erantzun egokia emateko, atzerriko hizkuntza bat ikasteko premia agertzen da -ingelesaren hautua egin da gure kasuan.

Hau hala, Lehen Hezkuntzarako maila zehatzik ezartzen ez denez, B1 maila da euskararen eta gaztelaniaren garapen-erreferentzia gisa hartuko duguna.

“B1 mailako ikasleak gai dira hizkuntza estandarrean idatzitako testu argi eta errezen puntu nagusiak ulertzeko, ikasketen esparruan eta aisialdian, eta gai ezagunei buruzkoak badira.

Gai ezagun edo interes pertsonalei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzakete.

Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai dira, beren iritziak labur-labur arrazoitzeke edota beren asmoak azaltzeko.

Atzerriko hizkuntzan, berriz, A2 maila izango da erreferentzia.

“A2 mailan ikasleak gai dira maiz erabiltzen diren esaldiak eta adierazpenak (informazio pertsonala, erosketak...) ulertzeko.

Gai dira trukaketa erreza eta zuzena eskatzen denean, jarduera erreze-tan eta ohikoetan jarduteko.

Gai dira hitz errezeekin zenbait gai adierazteko: jatorri kulturala, bere testuinguruko gauzak, berehalako premiak,...

Helburu hauek ez dira soilik hizkuntza gelarako eta hizkuntza irakasleari begira jartzen, harantzago joan nahi dugu. “*Guztiok gara hizkuntza-*

irakasle” topiko bat izatetik errealitate izatera pasatzea nahi dugu, hain zuzen, arlo guztietako ikasketak hizkuntza bidez eraiki eta transmititzen baitira.

Ildo honetatik, helburuak hezkuntza komunitate osoak aintzat hartze-ko idatzi dira:

- Hizkuntza guztiak komunikatzeko tresna eta kultura-ondare gisa hartu. Honen haritik, gizartea euskara indartzeko egiten ari den ahalginarekin kontziente izanik, euskara erabiltzea.
- Euskara eta gaztelaniako elkarrizketa arrunteko eta ikasketa-ekintze-tako egoera komunikatiboetan erabili ohi diren ahozko zein idatzizko testuak ulertu; eta era egoki, koherente eta zuzenean adierazi –hizkuntzaren erabilpen sistemekin eta araukin gogoeta etengabea–.
- Ingeleseko ohizko elkarrizketa eta ikasketa-ekintza errazetako egoera komunikatiboetan erabili ohi diren ahozko zein idatzizko testuak ulertu; eta era egoki, koherente eta zuzenean adierazi -hizkuntzaren erabilpen sistemekin eta araukin gogoeta etengabea–.
- Ikaslearen ezagutza eta interesetatik hurbil dagoen informazioa ulertu, hautatu eta prozesatu, hainbat iturri eta teknologia erabiliz.

3. Marko Orokorren Zehaztapena

Ikasleak taldekatzeaz

Hizkuntzari dagokionez, ondoko irizpidea kontuan hartuta elkartuko ditugu ikasleak bi urteko gelan: talde bakoitzean proportzionalki nahastuko ditugu ikasle euskaldunak, ia-euskaldunak, gaztelaniadunak, eta besteak; eta modu honetan talde orekatuak sortuko dira.

Hiru urteko gelan taldeak berrikusiko ditugu, eta, arazorik sortu ezean, talde hauek finkatuta geratuko dira Haur Hezkuntza etapa osorako.

Azkenik, Lehen Hezkuntzan taldeak berregin egingo dira, lehen irizpideak aplikaturik.

Hiru hizkuntzen presentziaz

Ezarrিতako helburuetara iristeko, EAEko hizkuntza gutxitua den euskarari eskainiko zaizkio ordu gehien eta instrukzio-hizkuntza nagusia bilakatuko da ikaslearen ikasketa prozesuan.

Euskararen presentzia Haur Hezkuntzan nagusi da. Ikasleak hizkuntza honen oinarriak eskuratzea bermatu nahi dugu etapa honetan, eta handia da egiten den ahalegina. Lehen hezkuntzan ere euskararen agerpen-aldia luzea da, baina gaztelania eta ingelesarekin gehiago konpartitzen du.

Gaztelania, EAEko beste hizkuntza ofiziala, ikasle batzuen ama-hizkuntza da. Hizketa arrunta kale giroan eskura erraza izanik oro har, eskolaren egitekoa da ikasketak burutzeko tresna gisa garatzea. Haur Hezkuntzan modu sistematikoan lantzen ez dugun arren, ikasketetan eta maila afektiboan maiz agertzen eta erabiltzen den hizkuntza da. Lehen Hezkuntzan hasi-hasieratik ikas-arlo bezala lantzen hasten gara.

Haur Hezkuntzan hasten gara ingelesarekin. Bi ordu astero eskaintzen zaizkio, eta lehen hurbilketa honetan hizkuntzarekin eta honen doinuarekin ohitzen hastea dugu xedea. Lehen Hezkuntzan, ikaslearen ingelesaren konpetentzia laburra izanik oraindik, ikasketa xeheak burutzeko erabiltzen hasten gara.

Aurton, 2011-12 ikasturtean Marko Hirueledun Proiektuan murgildu gara eta 4. mailako ikasleek ingelesa arloa ez ezik, Ikerketa eta Plastika ere ingelesez lantzen dute. Gure eskola herri euskaldun batean kokaturik egonda, gure ikasleak elebidunak dira. Gizarte elebidun batean kokaturik, ukatu ezina da gure ikasleentzat, datozen urteotan Europa izango dutela lan eremu, eta lan eremu horretan mugitzeko eta pertsona konpetenteak izateko, behar-beharrezkoa izango dute ingelesa hizkuntzaren ezagupen eta erabilpena: batetik komunikaziorako tresna bihurtuko zaie eta bestetik, informazio iturri izango dute. Hau dena ikusirik, proiektu Hirueledu-nean sartzea erabaki genuen.

Hizkuntzen tratamendu bateratuaz

Ikasketak *ekinaren* bitartez eraikitzen ditugu. Hau oso sustraituta dago Amara-Berri heziketa sisteman, izan ere, lanaren oinarri baitira elkarrekintza, harremana, komunikazioa, kontestu sozialak... Hauetan eta hauen bidez eraikitzen du ikasleak bai ikasketa bai hizkuntza. Ekinean, gauzak ikasteko tresna bihurtzen da hizkuntza, hau da, izaera instrumentala hartzen du, eta ikaskuntzaren muin eta tresna bilakatzen da aldi berean.

Hizkuntzen bitartekari izaera da nabarmendu nahi duguna; gure lanaren muina hizkuntzaren alderdi formalean baino, honen alderdi funtzionalean kokatzen baitugu; beraz, gelan proposatu ohi diren aktibitateek berezko funtsa dute, ez ohi dira bideratzen soilik hizkuntza objektu gisa ikastera.

Eskolako hedabideen garrantzia

Amara Berri Sistemán hain inportanteak diren hedabideak ardatz nagusi dira hizkuntza lanerako, izan ere geletan egiten den lan askoren irtenbide baitira. Garrantzi handikoak dira ikaslearen motibazioan eta zentzua ematen diote egindako lanari. Ildo honetatik –eta helburu bera-ekin– ezin dugu aipatu gabe utzi gela barruan, kideen aurrean zuzenean egiten diren hainbeste eta hainbeste transmisio, aurkezpen, antzezpen...

Inputaz eta Outputaz

Ikasleak hizkuntzekin izan behar duen kontaktua behar bestekoa eta kalitatekoa izatea segurtatu nahi dugu.

Jasotzen den hizkuntzaren, INPUTAREN, kantitatea eta kalitatea da gakoa. Garrantzi handia hartzen du honetan helduak ikaslearekin elkarre- kintzan jokatzeko duen gidari-paperak; batetik, bere hizkera eredu delako honentzat, eta bigarrenik, ikasleekin solasean erabiltzen dituen estrate- giek guztiz baldintzatzen dutelako hizkuntzaren eraikuntza.

Kantitateari dagokionez, erabileraren garrantzia azpimarratu nahi dugu: OUTPUTA. Hizkuntza erabiliz egituratzen doa hizkuntza; hori dela eta, saiakerak, erroreak, zalantzak, zuzenketak... ezinbestekoak dira hizkuntza finkatzeko.

Horixe da, hain zuzen ere, euskarari -hizkuntza ahulenari- ematen zaion agerpen-aldi luzeagoaren arrazoi nagusia.

Ahozko hizkuntzaz

Ahozko eta idatzizko erregistroak bereizi beharra dago: Ez dugu hitz egiten idazten den bezala, ez eta alderantziz ere; hortaz, bi moduak lan- tzen dira: ahozkoa eta idatzizkoa.

Ahozko hizkuntza ez dugu ohiko gaien gaineko solasetara mugatzen. Hau oinarria izan arren, helburuak maila formalagoetan kokatzen ditugu: hizkuntza deskontestualizatuan eta landuan trebatu nahi dugu ikaslea. Euskararen kasuan, kontuan izanik inguruan jasotzen den hizkuntza-ere- dua ez dela sarri egokiena izaten, saiakera berezia egin behar dugu hizke- ta arruntaren trebakuntzan.

Ikasketa formalagoko ekintzetan ahozko moduak eta idatzizkoak elkar elikatzen dute. Hauetan, ahozko erregistroa idatzizkora hurbiltzen zaigu, eta era honetan, hizkuntza idatzia oso tresna lagungarri bilakatzen da ahozko hizkuntza lantzeko.

Elkarrizketa (solasa) funtsezko prozedura bilakatzen zaigu hizkuntzen eraikuntzan.

Hauek bi solas mota bereizten dituzte: Solas interakzionala eta solas transazionala.

Solas interakzionala eguneroko erritoen eta ohituren inguruan sortzen dena: gelan sartu orduko, harrera, biribilean eguneroko kontuak, etorri ez direnak, datak, jantziak,... Solas honetan: gai arinak tratatzen dira eta eguneroko kontuekin zerikusia dute; hiztegi orokorra erabiltzen da; kontestu ezagun eta konkretuan ematen da; esan edo gertatu behar dena aurretik erraz pentsa daiteke; gakoa, azken batean, ulertzean datza.

Solas mota hau bi etapatan sortzen eta erabiltzen den arren, oso baliagarria zaigu Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako aurreneko zikloan, ohizko egoerak eta bizipenak sorrarazten diguten solasean.

Irakasleak solas honetan behar bezala erantzuteko prestatu beharra dauka: batetik, irakasten ari den hizkuntzaren kontzientzia izan behar du, zeri eman indarra momentu bakoitzean, zer errepikatu, zer azaldu, ikasle bakoitzaren prozesuaz jabetu...; eta bestetik, solas-dinamika hauetan bere esku-hartzearen jabe egiteko eta, ahal den neurrian, hobetzeko.

Solas transazionala, bestalde, ekintza garatuagoa da. Lanaren inguruan egiten da, hiztegi espezializatua erabiltzen da, zehaztasunez hitz egin behar da guztia ulertzea inportantea baita, mezuaren transmisioa da helburua...

Harremanerako erabiltzen den hizketaz gain, hizkuntza landuagoa eskatzen du solas mota honek, ezinbestekoa eskola-ikasketak burutzeko. Solas mota hau bi etapatan egiten den arren, garapen handiena Lehen Hezkuntzan egiten da.

Ipuinaren erabilpenaz, antzezpenez

Solasaz gain, ipuinari, antzezpenei, aurkezpenei... denbora luzea eskaintzen diegu. Entzuketei, errepikaketei, testua buruz ikasteari,... Ekin-tza hauei indar handia ematen diegu hizkuntza finkatzeko eta aberasteko duten balioagatik.

Irakurmenaz eta idazmenaz

Hizkuntza idatzia ederki menderatzea funtsezkoa dugu gaurko gizartean; hau ezinbesteko tresna bilakatu da bai besteekin komunikatzeko bai pentsamenduaren eta ezagutzaren eraikuntzarako. Ondorioz, ongi irakur-

tzea eta ongi idaztea konpetentzia inportanteak dira egungo bizimoduari aurre egiteko.

Ahozko lanean bezala, idatzizko testuaren lana egoera komunikatibo funtzional eta esanguratsuetan ere ardaizten dugu eta, ondorioz, genero eta mota askotako testu errealak erabili ohi ditugu ohiko jardueretan. Kontua ez da, beraz, ariketak egitea, benetako komunikazio ekintzak burutzea baizik.

Haur Hezkuntzan ematen zaio hasiera irakur-idazketa prozesuari. Ikasleak testu idatziarekin duen lehen hurbilpen honetan hainbat eginkizun proposatzen zaizkio: soinuekin jolastuz, fonemak aurkezten doaz. Fonema bakoitzarekin hainbat ekintza lantzen dira (Kontzientzia fonologikoa landuz) baita aurreidazketa eta aurreirakurketarako ekintzak ere.

Izen propioa dugu abiapuntua. Izena nola idatzi ikasita, kideen izenekin antzekotasunak eta ezberdintasunak bilatuz ondorioak ateratzen hasten da ikaslea, eta honekin batera hizkuntza idatziari buruzko aurre-ideiak eraikitzen doa.

Izenaren ondoren bere identitatea osatzen duten beste elementuak erabiltzen ditugu hainbat eratako aktibitateak egiteko, eta, bere ezagutzak zabaltzen doazen neurrian, areago goaz gure proposamenekin. Beste egoera funtzionalak aplikatzen hasten gara: ohartxoak idatzi, zerrenda osatu, informeak burutu, ikasleek diktatutako testuak irakasleak kopia-tu,... azken batean, norbere testu propioak sortzen jarri nahi dugu ikaslea.

Hizki larria da proposatzen dena idatzizko lehendabiziko urratsak emateko. Bost urteko gelan hizki xeherako pausoak ematen dira.

Irakasleak jokatzeko duen paperaren garrantzia azpimarratu nahi dugu. Ez diegu errore linguistikoei soilik erreparatzen, garrantzi handia du, baita ere, erabileraren egokitasunak, hizkuntza erregistroak, idazlearen intentzioak, hartzailea kontuan hartzeak.

Helduberriak

Fenomeno berri bati aurre egiten ari gatzazkio azken ikasturteetan: beste herrialde batzuetatik datozen ikasleen eskolatzeari, alegia. Euskara jakin ez, eta batzuetan gaztelania ere ez dakiten ikasleak ugaritzen ari dira geletan.

Gure ikastetxean ere gora egin du nabarmen **helduberrien kopuruak**: eskolako ikasleen % 9,7 inguru izatera heldu dira.

Hemen jaiotako ikasleekin ezarritako helburu beretsuak ditugu ikasle hauekin ere: EAEko bi hizkuntzak menderatzea eta atzerriko hizkuntza-
ren oinarriko ezagutza izatea.

Kontuan hartu behar da, baina, ikasle hauen abiapuntua ez dela berbera, eta ondorioz, hizkuntza jabe izateko epea aldatu egiten dela. Ikerketa gehienek 5-7 urteko epealdia ezartzen dute bigarren hizkuntza ikasteko, beti ere metodologia eraginkorra erabilita.

Etorri berriari talka emozional handia suposatu ohi dio hasierako egoera berriak. Gero, nor bere izaeraren araberako estrategia propioak sortzen ditu honetara egokitu eta hizkuntza berriak ikasteko. Horregatik, patxadaz hartu behar dugu hau, ikasle bakoitzaren egoeraz jabetuta eta sarri gertatu ohi den isiltasun-aldia errespetatuta. Ez gara itsutu behar lehenbailehen egindako murgilketak ekarriko dizkion onurei bakarrik begiratuta, ez horixe. Hau inportantea izanik ere, alderdi afektiboa da gakoa. Ez da presarik izan behar, denbora eman behar zaio ikasleari. Bere kultura identitatearenganako eta ama-hizkuntzarenganako interesa eta tratu polita erakusten dugula antzeman behar du; eta horrela, eta bakarrik horrela, proposatzen zaion hizkuntza berria ikastera “irekiko” da.

Ezinbestekoa da etorri-berriari harrera ona egitea, horretarako ezarritako daukagu Harrera Prozesu bat, bertan aipatzen dira jarraitu behar diren pausoak eta nori dagokion kasu bakoitzean. Haur Hezkuntzan bereziki, egokitzapen prozesua betetzeko denbora bat markatuta dago, eta Lehen Hezkuntzan lehenengo egunean HIPI irakaslea ikaslearekin egun osoan egoten da eta gelakideen artean arduraduna izendatzen da.

Besteekin erabilitako irizpide berberak hartzen dira nagusiki ikasle hauen lana gauzatzerakoan: besteekin elkarrekintzan eta arloetako lanen testuinguruan batik bat eskuratuko dute hizkuntza.

Elkarrizketa funtsezko prozedura bilakatzen da hasiera batean; partehartzea segurtatzeko, adibide erraz eta argiak jartzeko... eta azken batean, eta hau ezinbestekoa da, ulertzen duela segurtatzeko. Ikasleak lanaren muina beregana dezan saiatzen gara.

HIPIko errekurtsioa Lehen Hezkuntzako ikasleentzat da, beraz Haur Hezkuntzara datozen ikasleei errekurtsio hau ez zaie eskaintzen. Ikaste-txeak ikasle hauen beharrianak ikusirik esparru hau bete nahian Haur Hezkuntzako irakasleek saio intentsibo bereziak antolatzen dituzte hizkuntza maila indartzeko.

HIPIak hizkuntza- edo harrera-gelan lan egin ohi du hein handi batean. Hemen euskarazko oinarrizko trebeziak landu ohi ditu bai goizeko lehen orduan antolatutako talde txikiko saioetan bai banan banako beste saioetan.

Ikaslea, bestalde, ia hasieratik integratzen da gela arruntean. Hortaz, HIPIak gela arrunteko lan-guneetan egingo diren lanak ahalik eta lasterren egokituko ditu gelako irakaslearekin elkarlanean. Edukia ulergarriagoa egingo duten baliabideak erabiliko dira hasiera batean, irudien laguntzaz, kontzeptuak era sinpleago eta argiagoan azalduz...

Behin ikasleak gela arrunteko lanari aurre egiteko gutxieneko hizkuntza konpetentzia duenean hemen lan egingo du era egonkorrean. Hizkuntza-gelan, indartu egingo dira gela arruntean lantzen ari diren kontzeptuak, eta modu honetan poliki-poliki era autonomoagoan lan egiten hasiko da ikaslea.

Zaindu behar da, bestalde, familiari ematen zaion informazioa. Hizkuntz helburuez eta seme-alaben prozesuaz aurrean daitekeenaz hitz egin behar da.

Familiak barneratu behar du bere ama-hizkuntza mantentzeak eta hau indartzeak beste hizkuntzen jabeakentzarako duen onura. Horrez gain, familiak zer esan handia du ikasleak eskolako instrukzio-hizkuntzaz erakitzen duen balorazioan, eta hau ere oso faktore eragingarria da.

4. Euskararen Normalkuntza

Gizarteak euskararen normalkuntzarekin egiten duen ahaleginarekin gure konpromiso aktiboa adierazten dugu Hizkuntza Proiektu honetan. Euskara bultzatuko dugu ikastetxeko komunikazioak eta harremanak bideratzeko. Jakin badakigu bere horretan utziz gero, inongo saiakerarik egin gabe, gaztelania nagusitzeko joera gertatzen dela.

Ikasleak euskaradun identitatea izatea nahi dugu: euskara baloratu eta bere egin dezala; hizkuntza berreskuratzeko egiten ari garen saiakera eza-gutu eta ekimen honen partaide sentitu. Denon ondarea da eta berau jakiteak balioa du, beste edozein hizkuntza jakiteak duen bezala.

Euskara eta euskaraz ikasteaz gain, euskararen aberastasunaren, erabilgarritasunaren eta jakin behararen kontzientzia izan behar du ikasleak. Honetarako aldika-aldika gaia tratatzea komeni da, azaldu beharrekoak azalduz eta euskara ikasteko prozesuan ikasleak dituen bizipenen aurrean ulerkor agertuz.

Ikasleen euskarazko harremanak sustatzeaz

Eskolako harreman hizkuntza nagusia euskara izatea helburu dugu. Helburu hau lortzea etengabeko borroka da. Lan mordoxka: ekin, ekin eta ekin; eskatu, konbentzitu, baina ez inposatu; aktibitateen helburuak gogoratu behin eta berriz, hauei jarraipena egin; modu erakargarriak erabili...

Edozein hizkuntza (euskara gure kasuan) ikasteko oso inportantea da maiz jardutea honetan: zenbat eta saiakera gehiago hobeto, hizkuntza bat finkatzeko eta ohitura sortzeko. Beraz, ez da nahikoa irakaslearekin hitz egitea, horregatik Eskolaz Kanpoko ekintzak, irteerak, egonaldiak eta ikastetxera datozen agenteak euskara bultzatzeko ere egiten ditugu.

Euskararen normalizazio prozesuan gure esku-hartzea arautu gabeko esparruetan ere ezinbestekoa da. Eguneroko bizitzan, jolasetan, lagun artean... hauetan guztietan lortzen du funtzionaltasuna hizkuntzak. Ez dugu ezer lortuko euskara ikasteko hizkuntza hutsa bihurtzen bada, edo honela bizi badute gure ikasleek.

Irakasle on arteko harremanei buruz zenbat eta gehiago jardun euskaraz, hainbat eta sendoago ageriko da helburua. Zenbaitetan gure harremanetan eta bileretan errazegi jo ohi dugu gaztelaniara, eta horrek, era logikoan eta naturalean egiten dela eman arren, ahuldu egiten ditu gure planteamenduak. Ikaslearen aurrean era koherentean jokatu beharra dugu eskatzen eta egiten dugunarekin.

Bazkalorduko eta kirol ekintzetako harremanez

Euskara sustatzeko ekimen honetan komunitate osoarekin bat egin nahi dugu.

Denbora luzea ematen du ikasleak jangelan, jolaslekuan, kirol-ekintzetan... Garrantzizkoa da, beraz, irakaslea ez den gainontzeko pertsonalak (atezainak, kirol arduradun eta monitorea, jangelako pertsonalak...) euskara jakitea, erabiltzea eta ikasleari erabilaraztea. Pertsona hauek Hizkuntza Proiektuarekin bat egin dezaten, helburu zehatzak ezartzeko modua izatea bilatu behar dugu.

Idazkaritzako lanaz

Idazkaritza ikastetxe barruko funtzionamendurako ez ezik kanporako ere (familientzat, administrazioarentzat, auzoko eta gizarteko beste erakundeentzat) leiho inportantea bihurtzen da; ongi zaindu beharrekoa. Hemen ere sustatu egin behar dugu euskara.

Idazkaritza lanetan gurasoei harrera egiteko eta telefono deiak jasotzeko, ahal dela, euskaraz dakiten pertsonak jarriko dira. “Euskaraz lehen hitza” izanik gure leloa. Ezinbestez, euskaraz ez dakien pertsona bada funtzio hau bete behar duena, euskaraz zuzentzen diren pertsonekin errespetuz eta begirunez jokatu du.

Gurasoei zuzentzen zaizkien orri informatiboak, bestalde, bi hizkuntzetan idatziko dira.

Ebaluazio txostenez

Ebaluazio-txostenak, informazio pertsonalizatua dutenez, gurasoek eskatutako hizkuntzan idazten dira, nahiz eta honen egitura bi hizkuntzetan agertu.

Gurasoekin dugun harremanaz

Euskararen normalkuntzarekin bat egiteak hizkuntza honen presentzia bermatzea eskatzen du familiekin egiten dugun bileretan. Bileretan malgutasunez, naturaltasunez eta eraginkortasunez uztartu nahi izaten dugu alde batetik, transmititu nahi den informazioa, eta bestetik, euskararen erabilera. Hainbat formula probatu dira, eta oraingoz gaztelaniaz euskarriak (powerpoint...) eta azalpenak euskaraz, beste dokumentu bat emanez gero hizkuntza bietan: euskara, gaztelania.

Euskararen aldeko kanpainez

Honekin lotuta, bat egin nahi dugu auzo, udal edo herrialde mailan burutzen diren euskararen aldeko kanpaina eta ekimenekin: Udal Batzordean parte hartuz, Antzerki Astean, Dantzari Egunean, Idatzizko Ipuinean eta abarretan...